

13. SOZIETATE ANONIMOEI BURUZKO LEGEA (JARRAIPENA).

Aurkibidea

- Helburuak
- Kapitaleko Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako auditoreen beste lan batzuk.
- Glosategia

13.1. HELBURUAK

Ikasgai hau irakurtzeko bakarrik da. Ikasgai honekin, auditoreek, kontuen auditoriak egiteaz gain, beste lan batzuk ere egiten dituztela azaldu nahi dut. Beste lan hauek, auditore batek egin behar ditu baina ez dira urteko kontuen auditoriak.

Suposamendu bakoitzean sakontzeko, suposamendu bakoitzari dagokion Sozietate Anonimoei buruzko Legearen artikulua adierazi dizuet.

13.2. KAPITALEKO SOZIETATEEI BURUZKO LEGEAN AURREIKUSITAKO AUDITOREEN BESTE LAN BATZUK.

Sozietate Anonimo batean auditoreek egiten duten lan nagusia, urteko kontuen auditoria da. Baina sozietate baten informazio ekonomikoak sozietate anonimoaren bizitzaren momentu desberdinetan auditore baten iritzi teknikoa galdatzen du. Ondorioz, Sozietate Anonimoei buruzko Legean, suposamendu desberdinetarako, auditorearen parte hartzea aurreikusten da:

- a) Akzioak *mortis causa* eskuratzen direnean, akzio horien balio erreala zehaztea (64.1 artikulua) (Kapitaleko Sozietateen Legearen 124.2 art.a).
- b) Sozietate Anonimoa eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatean, bazkideak banantzean edo kanporatzean akzioen balioa zehaztea (Kapitaleko Sozietateen Legearen 353.1 eta 354 artikulua).
- c) Kapital gehikuntza kredituen konpentsazioz egiten denean, kredituak zehatzak direla ziurtatzea Sozietate Anonimoan (Kapitaleko Sozietateen Legearen 301.3 artikulua).
- d) Erreserben kargura egiten den kapital gehikuntzaren oinarria den balantzearen auditoria (Kapitaleko Sozietateen Legearen 303.5 artikulua).

- e) Akzioen eta partizipazioen harpidetzarako lehentasun eskubidea kentzen den kasurako, administratzaileen txostena zehatza dela eta akzioen balio errealak zehaztea Sozietate Anonimoan eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatean (Kapitaleko Sozietateen Legearen 308.2 a) eta Kotizatzen duten Sozietate Anonimoen kasuan, 505. artikulua).
- f) Galerak konpentsatzeko edo legezko erreserba gehitu edo eratzeko egiten den kapital murriztapenaren oinarria den balantzearen auditoria Sozietate Anonimoan eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatean (Kapitaleko Sozietateen Legearen 323. eta 328. art.a).
- g) Fusioari buruz akziodunentzat txostena (Merkataritza sozietateen egituraren aldaketei buruzko 2009.ko Legearen 37. art.a).
- h) Bereizketari buruz akziodunentzat txostena (Merkataritza sozietateen egituraren aldaketei buruzko 2009.ko Legearen 73. artikulua).

13.3. GLOSATEGIA

Banantzea

Akziodun bat banantzen denean, horrek ez du akziodun horrek bere akzioak saltzen dituenik esan nahi, sozietateari sozietatetik banantzeko bere intentzioa jakinarazten diola baizik. Kasu honetan, sozietateak banantzen den akziodunari bere akzioen balioa ordaindu beharko dio. Baina, banantzeko eskubidea ez da kasu guztietan egoten. Akziodunak, kasu konkretu batzuetan bakarrik izango du sozietatetik banantzeko eskubidea eta baldintza batzuk bete beharko ditu.

Bereizketa

Fusioaren kontrakoa da. Sozietate baten ondarea bereizten da, sozietate hori batzuetan desagertzen delarik eta beste batzuetan ez, bereizia izan den ondarearen zati edo zatiak blokean beste sozietate batera edo batzuetara traspasatuz.

Fusioa

Bi sozietate edo gehiago beraien artean elkartzea edo bategitea da, beren bazkideak eta ondareak sozietate bakar batean sartzen direlarik.

Galerak konpentsatzeko kapital murriztapena

Kapitala akzio guztien balio nominalaren batuketa da. Kapital murriztapena, lehendik dauden akzioak amortizatuz (deuseztatuz) edo beraien balio nominala gutxituz egin daiteke.

Sozietatearen ondarea egondako galeren ondorioz gutxitu denean, hirugarrenen aurrean, kapital zifra, ondare bermea izateari uzten dio. Kapital zifra, sozietatearen estatuetan azaltzen den zifra bat da. Ondarea, momentu zehatz batean, sozietateak dituen ondasun, eskubide eta obligazioak dira. Sozietatearen ondarea, kapitalaren bidez eratzen da. Kapital zifra akzio guztien balio nominalaren batuketa da. Akzioak harpidetzen dituzten pertsonak, harpidetutako akzio bakoitzaren balio nominala despoltsatu behar dute (diruzkoak diren eta diruzkoak ez diren ekarpenekin). Egindako ekarpenekin, sozietatearen hasierako ondarea eta kapital zifra berdinak izango dira. Ad. Sozietate Anonimo bat 70.000 euroko kapitalarekin eratzen bada, sozietate horren hasierako ondarea 70.000 eurokoa izango da. Kapital zifra berdina mantenduko da, espresuki, kapital gehikuntza edo murriztapen bat egiten ez bada behintzat. Ondarea, ordea, hasieratik aldatuz joango da irabazien eta galeren arabera.

Galerek, ondarea kapitalaren 2/3.en azpitik utzi badute, eta ekitaldi bat ondarea berreskuratu gabe pasa bada, kapital zifra hori murriztu egin beharko da, desoreka hori desagertu dadin beharrezkoa den neurrian.

Baina muga horretara iristea ez da beharrezkoa izango, galerak konpentsatzeko kapitala murriztea beharrezkoa izateko.

Suposamendu honekin, kapitalaren eta ondarearen arteko oreka lortu nahi da. Baina sozietatetik ez da ondarerik irteten. Ondarea mantendu egiten da eta ondarea eta kapitalaren oreka bilatzeko asmoz, kapital zifra murrizten da.

Harpidetzeko lehentasun eskubidea kendu

Kapital gehikuntza bat akzio berriak jaulkiz egiten denean, lehendik dauden akziodunek, akzio berri horiek harpidetzeko lehentasun eskubidea dute. Lehendik dituzten akzioen balio nominalaren kopuru proportzional bat harpidetzeko eskubidea dute. Kapital gehikuntza erreserben kargura egiten denean, ez dira akzio berriak harpidetzen, akziodun zaharrei debalde entregatu baizik, lehendik zituzten akzioen balio nominalaren proportzioan.

Baina, sozietatearen interesentzat beharrezkoa denean, Batzar Nagusiak, kapital gehikuntza erabakitzean, harpidetzeko lehentasun eskubidea osorik edo partzialki kentzea erabaki dezake. Akordio honek balioa izateko, Sozietate Anonimoen buruzko Legearen 159. artikuluan zehaztutako baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da.

Kapital gehikuntza erreserben kargura

Erreserbetatik kapitalera pasatzen den eragiketa kontable bat da. Kapital gehikuntza egiteko akzio berriak jaulkitzen badira eta erreserben kargura egiten bada, akzioak harpidetzen dituenak ez du ezer despoltsatzen erreserbak baitira balio nominal hori estaltzen dutenak. Posible da, baita ere, akzioak harpidetzen dituztenak, harpidetu dituzten akzioen balio nominalaren zati bat despoltsatu behar izatea eta falta dena erreserben kargura egitea.

Kredituen konpentsazio bidezko kapital gehikuntza

Kapital gehikuntza egiteko modu bat akzio berriak jaulkitzea da.

Sozietatearen hartzekodunak (sozietatearen kontra kredituak dituztenak) akziodun bihurtuko dira. Logikoa dirudi, hartzekodunak beren kredituak akzioekin konpentsatzeko prest egotea, sozietate zordunaren egoera ekonomikoa, momentukoa eta etorkizunekoa, beraientzat ona denean.

Gerta daiteke, eta gainera praktikan ez da gutxitan gertatuko, sozietate zorduna, krisi ekonomiko egoera batean egotea, eta nahiz eta oraindik epaileak konkurtsoan ez deklaratu, prozedura konkurtsalaren atean egotea. Kasu honetan, hartzekodunek beren kredituak akziotan transformatzea onartu beharko dute, segur aski, beraientzat oso interesgarriak ez diren baldintzetan baina, beste aukerarik gabe, konkurtsoa deklaratzeko bada, ez baitituzte beren asmoak edo nahiak beteta ikusiko.

Legezko erreserba sortzeko edo gehitzeko egiten den kapital murriztapena

Legezko erreserba gehitzeko egiten den kapital murriztapena da.

Legezko erreserba, Sozietate Anonimoei buruzko Legeak agintzen du, beste erreserbekin gertatzen ez den bezala. Beste erreserbak, estatutuetako erreserbak (estatutuek agindutakoak) edo borondatezko erreserbak (akziodunen Batzar nagusiak erabakitakoak) dira. Erreserbak Balantzearen pasiboan jartzen dira. Ekitaldiaren mozkinen ehuneko 10a legezko erreserbara eraman behar da, erreserba hau, gutxienez, kapitalaren ehuneko 20ra iristen den arte. Legezko erreserbaren helburuetako bat hartzekodunen interesak babestea da. Legezko erreserba ezin daiteke ukitu (salbuespenen bat badago), neurri hau hartzekodunentzat onuragarria delarik, legezko erreserbak sozietatearen ondarean bere korrespondentzia baitu eta sozietatearen ondarea da, beren kredituak kobratzeko, hartzekodunek duten bakarra.

Legezko erreserba gehitzeko egiten den kapital murriztapena, murriztapen kontable bat besterik ez da eta ez murriztapen efektibo bat, murriztapenaren helburua hau denean, ez baita sozietatetik ondarrerik irteten, kapitaletik irtendakoa erreserbara baitoa (kapital murriztapenaren helburua bazkideei ekarpenak bueltatzea denean, ondarea bai murrizten da bazkideen eskutara pasatzen baita).

Mortis causa, akzioak eskuratzea

Akzioak, norbaiten heriotzagatik, herentzia bidez, eskuratzea da.

Objektu soziala aldatzea

Sozietatearen objektua edo jarduera aldatzea da.